

1918ko gripe pandemia Hernanin

Aurten betetzen dira ehun urte gripe pandemia gertatu zenetik. “*Espainar gripea*” ezizenarekin pasa zena historiara, eta eragin izugarria izan zuen mundu osoan. Estatu Batuetan izan zuen jatorria, eta Lehendabiziko Munduko Gerran parte hartzen zuten Estatu Batuetako soldaduek Europan zabaldu zuten, eta gero mundu osora. Lehen agerraldia udaberrian izan zen, baina uda amaieratik udazkenera zabaldu zen bigarren agerraldiak izan zuen eragin latzena. Balantze mundiala ikaragarria izan zen eta gerran baino hildako gehiago utzi zituen, biztanleriaren ehuneko bat, eta ehuneko bat eta erdien artean kokatzen dira munduan hildakoen kopurua, hain zuzen Lehen Gerra mundialean hildakoak baino gehiago.

Gurean ere eragina izugarria izan zuen. Euskal Herrian gripearen hedatzeak milaka eta milaka gaixotu zituen, eta herri guztietan hildakoak ugariak izan ziren.

1918KO GRIPEA HERNANIN, GOIZUETAN ETA ARANON

Kontestuan jartzeko “La Voz de Guipuzcoa” 1918ko egunkaria irakurriz, irailaren hasieran gripearen aipamenik gutxi egiten dela ikusten da. Donostiako “beraneo”, kontzertu ekonomikoa, Europako gerla, Errusiako egoera, eta bestelakoak dira berri nagusiak. Baina gripearen lehen aipamen larria Nafarroatik dator, non egunkariak, 1918ko irailaren 9an, Iruñean duen korrespontsalak Goizuetan herritar asko gaixotu eta zenbait herritar hil dela azaltzen du. Ez da gripea aipatzen baina inguruko herrietan alarmak pizten dira. Urriaren hasieran hasten da gripeak garrantzia hartzen, eta egunkariaren lehen orrian leku garrantzitsua izango du. Urrian, Europan amaitzean dagoen lehen gerlarekin eta errusiaren egoerarekin batera, gripeak jarraituko du gai nagusia izaten. Horrela herrietan dauden gripe kasuak, instituzioek gripea epidemiaren aurrean hartzen dituzten neurriak, gripea kontrolatzeko mugaren kontrolak eta itxierak, afektatuei laguntzeko jasotzen diren laguntzak, kutsatzeko beldurrez gertatzen diren egoerak (adibidez laguntzaren faltaz Bilbon bere burua hiltzen duen gizon batena), e.a. dira egunkarian, La Voz de Guipuzcoan, azaltzen diren gripearekin lotutako berriak.



LA VOZ DE GUIPUZKOAN 1918ko urrian ia egunero gripea borrokatzeko ateratzen diren anuntzioak.

1918 urteko gripea Hernanin

Hernanin gripearen epidemia irailean, urrian eta azaroan garatzen da. Lehen kasua irailaren 8an ematen da eta azkena abenduaren batean. Urrian gripeak joko du gogorren Hernani.

Herriko Osasun Batzordearen bilerak.-

Herriko Osasun Batzordearen bitartez Udalak gripearen epidemia gestionatuko du. Nahiz hasiera batean tifusen agerraldia zela uste zen, Goizuetatik zetozezen berri kezkarriak direla eta, lehen bilera irailaren 10an izango da. Bertan zenbait erabaki hartu da: epidemia sortu duen gaixotasunaren berri ezagutzea, Probintziako Osasun Inspektioari premiazko abisua, mediku azterketa egin aurretik Goizuetatik datorren edozein laguni debekatzea Hernanin sartzea, gobernadoreari abisatzea hartutako osasun neurrien zailtasun ekonomiko eta naturalak, Urumeko ura erabiltzea eta bertan bainatzea debekatzea, izango dira hartutako neurri batzuk. Bilera berean “arbitrioak” kobratzeko Biterin zegoen “garita” Naparralde baserrira eramatea erabakitzen da, hau da Nafarroarekin Hernanik duen mugara, bertan Goizuetatik zetozen goizuetarrei osasun azterketa egiteko, gaixo aztarnak ez dituztenak desinfektatzeko eta guardak muga zaintzeko (antzeko neurriak hartuko ziren Irunen Bidasoako muga). Beste neurriak hartuko dira ere: Lasarten agertu diren bi tifus kasuen aurka isolamendu neurriak, zenbait neurri arropak eta komunak desinfektatzeko, eta zenbait desinfektatzeko gaiak eramatea.



Nafarroarekin muga egiten duen Naparralde baserria. Goizuetatik etortzen ziren lagunei osasun kontrolak egiteko Hernaniko udalak garita bat jarri zen

Baina hasierako tifus ustearen aurka berehala epidemia gripearena dela diagnostikatzen da, eta lagun ugari gaixorik zeudela eta, gripe agerraldiari aurre egiteko Herriko Osasun Batzordea berriz irailaren 17an bildu zen. Goizuetatik zetozen lagunekin osasun azterketarekin eta fumigazioarekin jarraitzea, eta ordutegia jartzea bi herrien artean ibiltzen zirenei. Baita herriko medikuek, dauden gaixo ugariei atenditzeko ezintasuna ikusirik, beste mediku bat eskatzen du, baina Probintziako Osasun Inspektioak ez du onartzen.

Berrito bi egun beranduago, Gobernadorearen premiazko deia aztertzeko Osasun Batzordea biltzen da. Gobernadoreak gripearen epidemia larria dela eta

herrialde guztian zabaltzen ari dela, epidemia zabaldu ez dadin behar diren neurriak har eta bete ditzaten agindu zuen.


Berriro urriaren 4an Batzordea biltzen da, beste gaien artean, Goizuetako bizilagun batzuek Hernanira joateko eskatu zuten baimena aztertzeko. Epidemia guztiz desagertu dela baieztatu arte ukatzea erabaki zuen. Baita gripearen epidemiak jotako etxeetako komunitan kare-bizia urarekin nahastuta botatzea aholkatzen da. Eta azkenik, bilera horretan ere, herriko medikuei ahalmentzen zaie kaleetako desinfekzioak egin zitzaizkien.

Gripearen epidemian Osasun Batzordeak egiten duen azken bilera Azaroaren 11ean izan zen. Bileran, ikusirik ia guztiz epidemia desagertu dela, Gobernadoreari hurrengo ostegunetan ganadu azoka egiteko baimena eskatzea erabaki zen. Baita musika (igandetan Ezkiagan egiten zen dantzaldia (¿)) hurrengo igandean izateko, eta azkenik, asteleheneanetik aurrera, eskolak, desinfektatu ondoren berriro zabaltzeko baimena ere.

1918ko gripearen ondorioz heriotzak

1920 urtean Hernaniko (Lasarte barne) populazioa 5404 lagunekoa zen, 2801 emakumezkoak eta 2601 gizonezkoak. 1917 eta 1918 urteetan antzekoa izango zela pentsa daiteke eta 5404 zifra hartuko dugu erreferentzi ondorengo azalpenak emateko.

1918 urteko gripearen ondorio tragikoaz hobeto jabetzeko Hernanin aurreko urtean, 1917 urtean, izan ziren heriotzekin konparatu behar da.




Hernanin 1917 urtean izandako heriotzak hilabetez hilabete

1917 urtean Hernanin laurogeita hamasei lagun hil ziren, berrogeita sei gizonezkoak eta berrogeita hamar emakumezkoak. Gehienek, 37, hirurogei urte baino gehiago zuten. Haurrak ere asko izan ziren hildakoak: hogeita bat hamar urte baina gutxiagoa. Grafikoan azaltzen denez hiru hilabetetan, otsailean, martxoan eta apirilean hamar heriotza baino gehiago gertatu ziren. Hernanin heriotza-tasa ‰ 17,7 izan zen 1917, eta ehun urte beranduago Gipuzkoan berriz, ‰ 9,8ekoa (2017.EUSTAT).

1918 urtean berriz, Hernanin, 142 lagun hil ziren. Urtearen hasieran heriotza tasa baxua dela esan daiteke, baina gripearen ondorioz irailean, urrian eta azaroan, heriotza tasa asko igotzen da eta 1917 urtearekin konparatuz, gripearen ondorioz, hildakoak ehuneko berrogeita hamar igo zen. Hildako erdiak urrian gertatu ziren.

Ondorengo grafikoan hobeto ikusi daiteke:



1918 urtean Hernanin hildakoak, hilabetez hilabete.

Urrian 77 lagun hiltzen dira Hernanin, gehienak gripearen epidemiaren ondorioz. Gainera gripeak hiltzen dituen gehienak haurrak eta gazteak dira. Hamasei eta berrogeita hamar urteen artean, gutxienez, berrogeita hemeretzi lagun hil ziren. Beste hamalau lagun, hamasei urte baino gutxiago zituzten. Urtearen hasierako hilabetetako heriotzaren kopuruei erreparatuz, hildakoak gutxiago ziren, baina gripearen epidemiaren ondoren kopurua, azaldu dugunez, askoz handiago izan zen, eta horrela hilkortasun tasa asko igotzen da, % 26,3ra. Egun Gipuzkoan hilezkortasun data % 9,8 delarik eta Hernaniko biztanleria hogeit mila dela, urtero berrehun bat lagun hiltzen dela kalkulatu daiteke, baina, hilkortasun data % 26,3koa balitz, hildakoak bost ehun eta hogeita sei izango liriteke. Aldea izugarria da.

Herri guztian zabaldu zen gripea

1918ko gripea, azaldu dugunez, mundu guztian zabaldu zen, eta Hernanin ere, gaixoan eta hildakoak herria osatzen zuen gune guztietan zehar izan ziren. Hildakoak herri gunetan eta baserrietan. Horrela Urumea kalean gutxienez gripeak hamasei hildako utzi zituen, Nagusian hamaika, Lasarten sei, Portun lau, Lizeagan bi, Martindegi baserrian lau, Elorrabi baserrian bi, Villa Martinen bi, Altuna baserrian bat, Argindegin bat, Tximistenean beste bat. Irubiden, Antziolan, Lastaolan, Okendoenean, eta beste zenbait baserrietan eta etxeetan hildakoak izan ziren.



Gripek gogotik jo zuen Urumea kalea, gaur Andre kale.

Urumea kalean, gaur Andra Mari kalean, gutxienez hamasei lagun hil ziren. Gutxienez lau emakumezkoak eta hamalau gizona ziren hildakoak. Hamar urte zituen gripeak hildako gazteenak eta berrogeita hamaika zaharrenak. Azken honek gainera lau seme-alaba utzi zituen. Urumea kalean langile familiak bizi ziren. Industriako langileak, gizarte segurantzarik gabeko garaietan, familietan hildako tragediari gehitu behar zitzaion zenbait famili baliabide ekonomikorik gabe geratzen zela.,

1918ko urtearen eragin sozialak.-

Aipatu dugunez gripe Hernani osoan zabaldu zen, kaleetan eta baserrietan, eta gizarte talde guztiak kolpatu zituen. 1918ko gripearen garaian, aipatu dugunez, gizarte segurantzarik gabekoak ziren, eta kontutan hartuta gripeak hildako ia gehienak gazteak zirela, eragin soziala izugarria izango zuela ondorioztatu daiteke. Zenbait familietan, gripeak sasoirik hoberenean zeuden emakumeak nahiz gizona ziren, eta lana egiteko gaitasuna zela askok zuen baliabide bakarra, baliabide ekonomikorik gabe utzi zituen. Gripeak agian aberatsak ere kolpatuko zituen, “Villetan” ere kolpatu zuen, baina heriotzaren tragedia berdintsua izan arren bizirik geratzen zirenen egoera ez zela berdina izango pentsa daiteke. Baita gizarte segurantzarik gabe bizi ziren arren, elkartasun sareak, familiaren artekoak nahiz bizi lagunen artekoak, gaur egungoak baino indartsuak izango zirela pentsa daiteke ere, eta kolpatutako familiak elkar lagunduz aurrera egingo zutela.

Amaitzeko, hain gertaera tragikoa izan zen gripearen gertaerari buruz ez dago oroimen handirik. Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea jasotzen duen Ahotsak proiektuan 1918 urteko gripearen zenbait testigantza jasotzen dira, baina Hernanikoak ez daude. Halere ehun urte pasa dira eta orduko lekukoak dagoeneko ez dira bizi eta gainera 1918 urtetik aurrera izan ziren gertaera historikoak Hernanin tragedia franko utzi zituen, aurrekoak txiki utziz.

